

## FUNTSEZKO JARDUERAK

1. Aplikazioaren diseinu ona egin beharko dugu ahalik eta erabilerrazena eta intuitiboena izan dadin.
2. Bezero erakartze ona egin beharko dute, alde batetik, publizitate egokia edukitzeko eta, bestetik, informazio biltzeko orduan erraztasunak izateko. Azkeneko hau ahalbidetuko diguna EHU, udaletxeak, enpresa lokalak, aisialdira begirako taldeak ... eta bestelako erakundeekin izango ditugun harremanak izango dira; izan ere, hauekin sare bat osatzea izango da gure funtsezko jardueretako bat.
3. Komunikazio plan on bat eratu beharko dugu gure aplikazioa ezagutarazteko eta ahalik eta erabiltzaile gehienetara iristeko. Horrela diru sarrerak handiagoak izango baitira eta, ondorioz, interakzio gehiago egongo da bai erabiltzaileekin eta baita gure harremanak izango diren erakunde eta bestelakoekin.
4. IKT aldetikan arazorik ez edukitzea bermatu beharko dugu aplikazioaren erabilerak arazoak eman ez ditzan. Hortaz, arlo teknikoa asko zaindu beharko dugu.